

Ikusi dugu orain arte jaio berriek behar duten tenperatura giroari ez zaiola behar besteko garrantzia eman eta hau aldatzeko helburuarekin jaio da gure enpresa. Askok beraien haurra ondo babestuta daudela pentsatzen dute baina askotan ezjakinagatik ez dute haur txikien funtsezko behar hau egoki asetzen, izan ere, askotan gehiegi estaltzen dituzte eta beste askotan gutxiegi.

Garrantzitsua ez dirudien arren, produktu honekin hainbat gaixotasun ekidin daitezke, besteak beste, neumonia, pulmonia, gripea, sukarra...eta gurasoek kontzientzia izatea da lehenengo pausua.

Eider, Xabier, Iker eta Ainara gara, eta gure proiektuarekin gatoz; Urretxu-Zumarraga ikastetxeak gara eta Startinnovako proiektuan parte hartu behar dugu. Gure helburua arrakasta izateaz gain umeen bizi kalitatea hobetzea da eta gurasoei lasaitasuna eskeintzea.

Guk esku tartean dugun proiektuarekin gaixotasunak ekidin ditzazkegu, izan ere, jaio berrien kotxeetan zenbait sentsore ezarriko ditugu, tenperatura erregulatzeaz arduratuko direnak eta umearen tenperatura altua edo bajua bada gurasoei jakinaraziko diena.